

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 247. zkia. 2016ko uztaila



**Gora bihotzak!
Gertu ditugu jaiak!**

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun,
hortz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

Etxean doan jaso nahi?

**Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera
eta hilerro-hilerro etxeko buzoian jasoko duzu.**

Ugaro
aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Xabier Ciarsolo.

LAGUNTZAILEAK:

Leire Elustondo,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza,
Edurne Pradera
eta Jabi Vidal.

ARGAZKIAK:

Antxitxiketan, Koldo
Aranberria, Amaia
Arginzoniz, Paul Bustindui,
Xabier Ciarsolo, Leire
Elustondo, Ermuko
Merkatari eta Ostalarien
Elkartea, Ermuko Udala,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza, Eneritz
Murillo, Edurne Pradera,
Dorleta Vidal eta Jabi Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

ZAPUE eta SATORRANA

Mallabian jasotako ipuintxo bat amaiera emateko bertako ugaztunen sail honi.

20 pizti patari, 20 animalia hegalaria eta karraskari, hilean-hilean gure inguruko basoetako kobazulo eta gordelekuetatik atara eta euren izaera, lorrotz eta bizieran arakatzu hobeto ezagutzeko beta eskaini digutenak.

“Gurien kontatze ebenez, zapuek eta satorrak tratue ein ei xeben: satorrak ba lurpien ibiltteko bistaik biher ez eta zapuai bistie emon ei xotsen, eta zapuek satorrai buztena. Horregaittik ei deuko zapuek begi haundixek eta puztuek. Eta satorrak, buztena lar haundixe ez badeuko be, zapuan buzten ezebezan onduen zeozer izan ha be! Egixe esateko, tratuoi ikusittakoik ez zan gure etxe bueltan argittu, baiña guk, ume orduen, siñistu. Zeozer asmau bihar gure aurretikuek be euren hárek ume aldra haundixok entretenidute eukitzeko!”.

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Edurne Pradera (Suitza)	ERREPORTAJEA 16-17 Eneritz Murillo margolaria
ELKARRIZKETA5-7 Loli Bello, Merkatarien Elkarteko kidea	IRITZIA 18 Argazkiak (Jabi Vidal)
MALLABIAN ZER?8-9 Zuntz optikoa	SALEROSKETAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN 10 Erabili Ermuan Bagarako kamisetak!	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SANTIXAUETAKO GEHIGARRIA..... 11-14	KALEKO INKESTA21 Ondo iruditzen zaizu kontzertuak San Pelaion egitea?
BOTEPRONTOAN 15 Elena Perez	AGENDA22 Abuztuko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Edurne Pradera

Arkitektura ikasi zuen Edurnek Iruñean eta bi urte eman zituen bertan lanean. Orduan, atzerrira joateko ikusmina sortu zitzaiola aitortzen du eta, arkitekturaren esparruan Suitzak duen izen onak erakarrita, curriculuma bidali zuen. Azkar topatu zuen lana. 2007tik ari da bertan.

- Erabaki erraza izan zen Mallabia uztea?

26 urte dituzunean eta, ikasketak bukatu ondoren, atzerrian lana eskatu eta lortzen duzunean, zelan esan ezetz? Ez nuen ezer galtzen eta lan-aukera ona zen. Ez nuen pentsatzen horrenbeste urtetarako izango zenik!

- Nola irudikatzen zenuen Suitza?

Aitak etxera ekartzen zituen egutegi-tatik Suitzako argazkiak moztu eta gelan jartzen nituen txikitari. Argazki horietan bezala imajinatzen nuen, eta horrelakoa da! Paisaiak, mendiak, lakuak... Nire senarraren familiak egurrezko etxetxo bat dauka mendian, eta Heidiren txabolan gaudela dirudi. Umeak gustura ibiltzen dira han: Igaritzen da baserriko zer edo zer dutela!

- Zer da Suitzatik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Oso gustukoa dut lanera trenean joateko ohitura. Gehienek erabiltzen dute trenea, primeran funtzionatzen duelako. Janaria, berriz, amarena askoz hobea da!

- Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?



Suitzian 3 hizkuntza ofizial daude: frantsesa, alemana eta italiera. Ni bizi naizen Kantoian, Vaud-en, frantsesez egiten da. Etorri aurretik banekien, baina ez nuen sekula imajinatu Suitzian erabiliko nuela! Gizonarekin etxean eta lanean egunero frantsesez mintzatu eta gero, laster moldatu nintzen.

- Zerbaiten falta sentitzen duzu?

Familia asko botatzen dut faltan, eta igandeko paella ere! Itsasoa ere, itsasoaren usaina, olatuen soinua... Laku handi bat daukagu etxetik gertu, baina ez da gauza bera.

- Nolako da zure egun arrunt bat?

Maratoia batzuetan! Gizona eta biok arkitektoak gara, eta ez da lan erraza 2 eta 6 urteko umeekin. Goizeko 6:30ean jaikitzen naiz, prestatu eta umeak esnatzen ditut. Nagusiak, Zorane, etxetik gertu dauka eskola; Eneko, berriz, bizikletaz eramaten dut haurtzaindegira, eta lanera joateko trenea hartzen dut.

Marc eta biok txandaka egiten dugu umeak eraman eta jasotzearena.

- Aisialdian?

Aisialdia? Zer da hori? Laku inguruan umeekin bizikletan ibili edo mendian bueltatxo egitea dugu gustuko.

- Noiz egon zara Mallabian azkeneko aldiz?

Maiatzean, gure ezkontza zela-eta. Gaztelugatxen ezkondu ginen, eta Suitza eta Kroaziako familia etorri zen. Benetan gustura egon ziren denak! Ekainean, nire ilobaren urtebetetzera-ko joan nintzen abisatu barik. Urtean hirutan joaten naiz gutxienez.

- Mallabira bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ez nuen pentsatzen hamar urte geldituko nintzenik Suitzian, eta hemen nago, Schellenberg abizeneko bi umekin! Beraz, ez dakit, nire buruan atea irekita dago oraindik.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Loli Bello, Ermuko Merkatarik Elkarteko kidea:

“Elkarteko kidea izatea pribilegioa eta betebeharra izan beharko litzateke”

Ermuko Merkatarik Elkartea 1986an jaio zen. Dendari talde gazte eta zirikatzailearen ekimenez sortu zen, tartean Javi San Ildefonso, Senén Bravo, Horacio Ramos, Idoia Goikoetxea, Javi Sagardui, Mari Angeles Irusta eta Loli Bello. Hogeita hamar urte igaro dira ordutik, eta Loli Bello da hastapenetan parte hartu zuen eta lanean jarraitzen duen kide bakarra. Horrek ematen dio ikuspuntu zabala (elkartez, elkartearen ibilbidez, herriaz, dendez, dendariez eta erosteko ohiturez, besteak beste) eta 30. urteurren honetan bozeramaile aukeratu dute.

- Nola gogoratzen duzu elkartearen jaiotza, 1986an?

Orduko dendariak genituen kezkei irtenbidea emateko asmoarekin elkartu ginen taldetxo bat. Garai politak izan ziren: gazteak ginen, ipurterre hutsak eta oso harreman ona genuen. Ikasteko gogotsu geunden, eta zetozen garaiei aurrea hartu nahi genien. Horrez gain, lan egitea gustatzen zitzaigun eta aitortu behar dut lan handia egiten genuela, baina gustukoa genuen.

- Gogoan dituzu lehen zuzendaritzako kideak?

Bai, 10 bat lagun ginen eta ez genuen bileretara hutsa egiten. Gainera, egungo alkatea izan zen gure lehen idazkari eta diruzaina hainbat urtetan, BBKn lan egiten zuen garaian.

- Zeintzuk ziren elkartearen helburuak?

Alde batetik, herriko jendea herrian geratzea; bestetik, merkatarion eskubideak instituzioen aurrean defendatzea. Babesik gabe geunden diru-laguntzak bilatzeko, formaziorako...

- Eta nola lortzen zenuten jendea herrian geratzea?

Jarduerak egiten genituen: zozketak, txangoak, afariak... Gogoangarriena, zalantza barik, *La ruleta de la fortuna*ra joan ginenean, Andoni Ferreñok aurkezten zuenean. Kotxea irabazi, eta zozketatu egin genuen gero; Gorabideri eman genizkion irabaziak.



Elkartearen 30. urteurrenaren ospakizuna.

- Elkarteari lotuta, Tximeleta agertzen da askotan. Zer izan zen Tximeleta?

Dendarien elkartearen berrogeita hamar dendari inguru geunden. Horietako batzuek uste genuen beharrezkoa zela dirua inbertitzea merkataritza ezberdina bultzatzeko eta besteengandik bereizteko, eta horrela jaio zen Tximeleta. Azpialde horretako kideok (15 inguru) kuota ipintzen genuen hilero eta zozketak, jarduerak eta sustapenak egiten genituen. Hamar urte inguru iraun zuen ekimenak.

- Tximeleta hil zen, baina elkarteak aurrera egin zuen. Nola eboluzionatu du azken horrek?

Hasieran bazkide gutxi ginen, gauza berriek mesfidantza sortzen dutelako. Gero bazkide kopuruak gora egin zuen, gero behera... Garaiak ere pisu handia dauka, hala nola egiten diren jarduerak.

Esaterako, jarduerak, nahi barik, haserreak sortzen dituzte batzuetan, ez badira ondo kudeatzen. Bazkide batzuek elkartearen uztearekin mehatxatzen zuten, eta alde egn. Eta berriro antolatu behar zen jarduerak gustatzen bazitzaie, berriro ematen zuten izena, inolako arazo barik. Orain, aldiz, elkartearen uzten dutenek ezin dute epe batean berriro elkartearen parte hartu, edo tartean ordaindu barik utzi dituzten kuotak ordaindu behar dituzte. Arau berriak ipintzen joan gara.

- Eta merkataritzak zer nolako bilakaera izan du azken 3 hamarkadetan?

Aldaketa itzelezko garaia izan da, teknologia kontuetan, sare sozialetan... Lan handia eskatu digu eta denbora asko, eta ikasteko gogoia, jakina. Hori barik, akabo!

- Bezeroa ere aldatu da?

Bai, egungo gazteek informazio asko dute. Gauza guztiek dakitela uste dute, Interneten informazio asko dagoelako, baina... batzuetan oker daude. Saltokietako arduradunek ere egunean egon be-

har dugu, bezeroek duten informazio maila bera izan behar genuke. Eta teknologia berriak erabili, informazioa mezu elektronikoz edo WhatsApp bidali, esaterako; fideltasuna horrela ere irabazten da. Baina dendari batzuek ez dituzte teknologiak gustuko, eta etorkizun eskasa dutela esango nuke.

- Zer nolako egoeran dago merkataritza egun Ermuan?

Baxu dago. Behetik gora goaz, baina oso urte txarrak pasatu ditugu, 2012tik 2014ra batez ere. Kaleko jendearen aurpegietan igartzen zen, ez zegoela erosteko gogorik. Gainera, dendari askok, lan gutxi badute, apaldu egiten dira. Krisiak eragin digu, baina horrez gain, Zubiaurre kotxeei ixteak ere min handia egin zizun. Dendariok ez genuen nahi, baina Udalak inposatu zizun. Gero txandakako aparkalekuak ipini zituzten, baina beranduegi izan zen: Mallabiko bezero askok, esaterako, Eibarrera joateko ohitura hartu zuten.

“Teknologia kontuetan, aldaketa itzela izan du merkataritzak”






ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

- Nolakoa da Udalarekin izan duzuen harremana?

Hasieran oso harreman ona izan genuen; gorabeherak izan genituen gero, eta momentu batean harremana eten egin zen. Gaur egun, Udalak merkataritzari bul-tzada eman nahi dio eta bilera egiten hasi gara.

**- Lehen aipatu duzu alkattea diruzain izan zenutela. Ondo ezagutzen du elkar-
tea orduan...**

Bai, eta badakit merkataritzaren aldeko apustua egiten duela, baina orain arazoa da gutxi ikusten dugula. Hala ere, ganorazko orde-zkoak utzi ditu.

- Zenbat kide zarete egun elkartean?

81 (80 denda eta taberna bat). Herrian 220 denda daude, beraz 139 ez dira bazkideak. Duela 4 bat urte 120 kide ginen, baina tabernak joan dira, denda batzuk itxi dituzte, beste batzuk aldatu... Jendeari kostatu egiten zaio elkartean izena ematea, eta ez dut ulertzen, niretzako pribilegioa da. Pribilegioa eta betebe-

harra. Batzuek ikusten duten gauza bakarra kuota da. Kuota ordaintzen dugu, bai, baina sinbolikoa da. Ez dut ulertzen. Aldi berean, esango nuke zuzendaritzak ez dakiela ondo transmititzen egiten duen guztia, eta horregatik kostatzen zaigu jendea konbentzitzea.

- Denda guztiak bazkide ez izateak kalte egiten zaituzte?

Bai, indarra egiteko orduan. Pentsatzen dut gu atzetik joan beharrean, dendariak parte hartzeko desiratzten egon beharko lirakeela. Giro polita dugu, eta gero eta hobea da. Hileko lehen asteazkenean bazkaria egiten dugu, beste bazkideei prezio bereziak egiten dizkiegu, garraioetarako prezio baxuak kudeatzen ditugu...

- Esan duzu ostalari gehienak joan egin direla. Zer dela-eta?

Ez dakit. Ni zuzendaritzan egon nintzenean, 2011 eta 2012an, arazo larriak zituzten zarata-limitadoreekin. Astean bi eta hiru bilera egiten genituen eurekin, 22:30ak inguru-

“Oso urte txarrak pasatu ditugu, baina orain merkataritza behetik gora doa”

ruan, eta talde sendoa osatzea eskatu genien, euren interesak defendatu ahal izateko. Baina antzinako gatazkak zituzten euren artean, eta zaila zen adostasunak bilatzea. Ondoren etorri diren zuzendaritzak, gainera, ez dira prest egon tabernarien ordutegietara egokitzeko, eta bata bestearengandik aldentzen joan gara.

- Nola aukeratu dira zuzendaritzako kideak?

Boluntarioa izaten da, baina azken urteotan zerrenda hartu behar izan dugu, batzuek ez dutelako sekula euren burua eskaintzen. Oso jarrera berekoa iruditzen zait, guztion denborak balio bera baitu. Uste dut lanerako prest ez dagoena, ez litzatekeela elkartean egon behar. Zertarako nahi dituzu ekarpenik egiten ez duten bazkideak? Zuzendaritzaren lana kritikatzten dute, gainera, ez dakitelako zenbat lan egiten dugun.

- Zergatik kostatzen zaio jendeari musu-truk lan egitea?

Erosoagoa delako norberarentzako denbora izatea.

- Zuk nola gogoratzen dituzu lehendakari bezala eman zenituen bi urteak?

Oroitzapen ona dut. Lehen Gauda Zabalik egin genuen orduan, eta Euskaldendaren jaiotzan parte hartu genuen. Horri esker Euskal Herriko Dendari Elkartearen Federazioko bazkide fundatzailea da Ermua.

- Zeintzuk dira zuzendaritzak kudeatu behar dituen gairik arazotsuenak?

Beherapenak, zalantza barrik. Lehen, beherapen ofizialetako datetatik kanpo deskontuak ipintzeko arrazoiak zorrotzagoak ziren, orain edozein aitzakiak balio du, edozein garaitan promozioak ipintzen dira... Elkar errespetatu beharko genuke, gure artean min egiten ari gara-eta.

- Elkarrekin ez dauka eskumenik kontu horiek arautzeko?

Saiatzen gara, baina gatzada. Zigorrek eta isunak ipini izan ditugu, baina zaila da horiek betearaztea.

- Zeintzuk ekimen egin dituzue 30. urteurrenean?

Paella egunean elkarrekin bazkaldu genuen plazako mausoleoan, eta alkateak ere gurekin bazkaldu zuen. Gauda Zabalik ekimenarekin batera ospatu zen urteurrena, eta oharkabean pasatu da nire us-tez. Bideo bat ere egin dugu (YouTubean ikus daiteke), Alain Kortazarrek zuzendu eta Aixerrek grabatuta.

- Eta aurrera begira, zeintzuk dira esku artean dituzuen erronkak?

Ermua Txartela hobetzeko lan egiten ari gara. 2009an jaiotzen eta 3.000 txartel inguru egin ditugu, baina eraldatzeko asmoa dugu. Ezin dut ezer aurreratu, baina herriko banketxe guztien deiak jaso ditugu dagoeneko.

Dorleta Vidal



Elkarteko kideak 2012ko inauertietan. Foto Ocón.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Caperos
Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Zuntz optikoa Mallabira hedatuko da

Mallabiko Udalaren eta Ermuko Udalaren arteko lankidetzahitzarmenak abiadura handiko internet sarea ezarriko du herriko hirigunean bertakoen konektibitatea handitzeko asmoz.

Ermuko zuntz optikoa Mallabiko hirigunera zabalduko da udalarte ermuarrak azken bilkuran alderdi politiko guztien adostasuna lortu ostean. Modu honetan, hitzarmen bat sinatu da Mallabiko Udalarekin Ermuan dagoen abiadura handiko Internet sarea Mallabira zabaltzeko, biztanleen Internet konexioa hobetzeko eta Ermuko udal zuntz optikoaren bezero kopurua handitzeko.

Mallabiko Udalak bere eskumenekoak diren argiztapen publikoko sareko kanalizazioak egokitzeko beharrezko obra zibila egingo du; izan ere, bide horretatik igaroko da zuntz optikoko



sarea. Lan horiek burutu ahal izateko, 78.408,53 euroko aurrekontua du. Gainera, sare horren mantentze lanen arduraduna izango da aurrerantzean ere.

Bestalde, Ermuko Udala zuntz optikoko sarea hedatzeaz arduratuko da Promosa sozietate publikoaren bitartez, eta horretarako 61.122,08 euroko aurrekontua izango du. Era berean, zuntz sarea mantentzeaz arduratuko da.

Proiektu honetan interes handia izan du Mallabiko herriak komunikazio elektronikoko sare zabaleko seinalea ezartzeko hirigunean zuntz optikoaren bitartez. "Mallabiko helburua hiritarren bizikaltatea hobetzea izan da beti, eta zuntz optikoaren ezarriera positiboa da", adierazten du hitzarmenak.

Momentuz, Promosak FiberMUA izeneko sarea Ermu-



Argazkia: Ermuko Udala.

ko hirigune osoan ezarri du, Eibar-Ermua Campuseraino konexioa eginez. Etorkizunean Goitondo industrialdera zabaldu nahi du.

Domeinu publikoaren bitartez funtzionatzen duten telekomunikazio zerbitzu hauek aurreikusten dute Mallabiko hirigunean ezarriko duten 50Mb segundoko zerbitzu estandarrak 35 euroko alta kostua izango duela, 18 euroko hileko kuotaz gain.

Erabiltzeko baldintzak

Hitzarmen hau era egokian bete dadin, Mallabiko Udalak obra zibileko proiektu

bat adostu beharko du non zuntz optikoa garraiatzen duten kableen instalazioa argiztatze publikoaren hodieetatik joango den.

Horretaz gain, Ermuko Udalari Promosaren bitartez eta 20 urteko tartez, herriko udal sarearen erabilera lagapen-akordioa bete beharko du. Azpiegitura horien erabilerari dagokionez, Promosak ez du operatzaile berrien sarrera oztopatuko, telekomunikazio zerbitzuak eskaintzeko merkatuan lehia irekiko erregimena bere horretan mantendu ahal izateko.

Paul Bustindui

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale beheka, z/g 48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

MALLABIKO FRONTENIS MARATOIAN LOBATO ETA IRAURGI GARAILE

Edu Lobato arabarrak eta Mikel Iraurgi abadiñarrak irabazi dute Mallabiko frontenis txapelketa. 15 orduz, Euskal Herri guztitik etorritako 24 bikotek parte hartu dute Mallabiko frontenis maratoin. Bertan, Mikel Iraurgi abadiñarra eta Edu Lobato arabarra izan ziren garaileak, Jon Azkarra eta Oier Irazabal elorriarrak finalean menderatuta.



ANDRA MARI JAIETAKO JUBILATUEN BAZKARIA

San Roke egunez, abuztuaren 16an, 14:00etan, jubilatuen bazkaria ospatuko da Mallabiko Kontzejuzarrean. Bazkaria dohakoa izango da, eta parte hartu nahi dutenek abuztuaren 5a baino lehen eman beharko dute izena udaletxean. Izena eman arren, egun horretan ezin dena bazkarira hurreratu, eguna baino lehen abisatu beharko du.



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com



Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- | | | |
|----------------------|----------------------|--------------------|
| - Luis Cañas familia | - Pazo Señorans | - Txakoli Aharregi |
| - Añada Real | - Vicente Gandía | - Milana |
| - Vllera taldea | - Oriol Rossell | - La Loca Juana |
| - Gomez Cruzado | - Astobiza txakolina | - nitida |

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia



AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5

Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

**HAZILAN
PROGRAMAREN
EDIZIO BERRIA
IRAILEAN**

Gazte kualifikatuei lana aurkitzen laguntzeko Hazilan egitasmoaren bigarren edizioa martxan jarri du Debegesak. Goi mailako ikasketak dituzten eta lana aurkitu ezinik dabilen 20 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago programa hau eta parte hartu nahi dutenek, debegesa.eus webgunearen bitartez eman dezakete izena. Lehendabiziko edizioa aurtengo martxoan burutu da, eta arduradunek azaldu dutenez "parte hartu duten 13 lagunek lan-kontratua edo lan-praktikak lortu dituzte jada".

**II CAMPUS
TEKNOLOGIKOA
EGIN DA EKAINA
ETA UZTAILEAN**

DBHko hogeita hamalau ikaslek parte hartu dute Ermuko Udaleko Toki Garapen alorrak antolatu duen Campus Teknologikoan. Ekimen horrek jarraipena izango du irailetik abendura arte gutxienez.

Ermuan Bagara ekimeneko kamisetak janzteko deia egin dute antolatzaileek

Santixau jaietan eta oporretan Ermuan Bagara egitasmo-ko kamisetak erabiltzeko gonbitea egin dute Ermuko Euskaltzaleen Sareko arduradunek. Lehenengo hitzordua uztailaren 25ean izango da. Egun horretan euskararen aldeko topa-konpromisoa egingo da Orbe Kardinalaren plazan 20:30ean, eta ekitaldi horretan parte hartzea eta kamiseta soinean eramatea eskatzen du Euskaltzaleen Sareak. Bestalde, kamiseta hura oporretako mailetan sartzeari sarritxo izan dezake. Oporretan daudenek, kamiseta ipini, argazkia atera eta Ermuko Euskaltzaleen Sareko facebookera bidali beharko dute. "Atsegin dut" gehien jasotzen dituen argazkiak lehiaketa irabaziko du. Kamisetarik ez dutenek hiru bide dituzte berau eskatzeko: Facebook, posta elektronikoa (ermukoeuskaltzaleensarea@gmail.com) eta telefonoa (943179350 edo 688632874). Euskal Birusa elkarteak eta Antxitxiketan taldeak elkarlanean antolatzen duten txikurixan erosi ahal izango dira kamisetok.

**240 umek parte hartu dute udalekuetan**

Sei eta hamaika urte bitarteko 240 umek eman dute izena Ermuko Udaleko Euskara Sailak antolatzen dituen udalekuetan. Eurekin batera, Antxitxiketan aisialdi taldeko 24 begirale aritu dira zaintza eta antolaketa lanetan 3 astez (ekainaren 27tik uztailaren 15era), praktikak egiten ari ziren beste 6 begiralerekin batera. Antxitxiketan taldeak, gainera, bi ekimen abiatu ditu bere kabuz aurten ere: Ludoteka eta Gazte Ibiltariak. Ludotekan 25 haurtxok hartu dute parte eta elkarrekin jolasean lau aste igaro dituzte. Gazte Ibiltariak programak, aldiz, gora-beherak izan ditu: 2013 eta 2014an Udaleko diru-laguntza jaso zuen, 2015ean ez zen burutu, eta 2016an inolako diru-laguntza barik gauzatu da, bai neguan, bai udan. "Antxitxiketanek bere poltsikotik dirua ipini behar izan du, baina aurrera atera dugu", diote taldeko arduradunek. Izan ere, DBHko ikasleei zuzendutako udaleku horietan 20 gaztek parte hartu dute aurtengo udan, aurreko urteetan baino kopuru handiagoa.



Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

de

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Kopi-Fax

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

ONDO PASA SANTIXA UETAN!



Argazkiak: Xabier Ciarsolo.

UZTAILAREN 24a, IGANDEA

- **10:30** Orbe Kardinalaren plazan, **HERRI-ARTEKO XAKE PARTIDA AZKARREN XXI. LEHIAKETA**, Ermutarrak Xake Taldeak antolatuta.
- **17:00** Patxi plazan, **JAI-OPARI BANAKETA** Drogomenpekotasun Prebentzioko Udal Zerbitzuen eskutik.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan **TXARANGEN AURKEZPENA** eta ohiko **KALEJIRA**

Irulitxa eta Los Villanos del Ruido musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta.

- **23:00 / 04:00 DANTZALDIA** Orbe Kardinalaren plazan Nueva Alaska orkestrarekin.
- **23:00 / 4:00** San Pelaio plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako **ROCK JAIALDIA** Madrileko Wormed eta Gipuzkoako Bloody Brotherhood eta Ankharr taldeekin.

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu-

Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527

KARABIXTA

KARABIXTA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

MOLOIKO
cafe lounge



UZTAILAREN 25a, ASTELEHENA

- **7:00 TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela eta Leongo Kultur Zentroak antolatuta.

- **7:30** Plazako pilotalekuan Txarangen batzordeak antolatutako **BARRUS** partidak. Laguntzailea: Zabal taberna.

- **8:00 SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.

- **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00 HAURREN-TZAKO PARKEA** San Martin plazan.

- **12:30** Santiago Apostoluaren elizan **MEZA** izango da patrioiaren omenez.

- **12:30 HERRI-KIROL** ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan. Harri-jasotzaileak: Inaxio Perurena, Jon Gisasola eta Aritz Etxebarria. Iparraldeko jokoak: Zelai-Luze eta Karmele Gisasola. Aizkolariak: Jon Gisasola-Ioritz Gisasola Aritz Etxebarria-Hodei Ezpeletaren aurka.

- **12:30 KALEJIRA** The Joselontxo's txarangaren eskutik.

- **17:00** Aritzmendin **PROFESIONAL ARTEKO ESKU-PILOTA PARTIDAK:**



HAMBURGUESERIA

TITANIC

Cantabria 2 · 48260 ERMUA (Bizkaia) · 943 17 67 83

1. partida: Elordi-Irusta Ugalde-Martija.

2. partida: Irribarria-Rezusta Altuna III-Zabaleta. Antolatzailea: Ermuko Pilota Taldea.

- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaren eskutik.

- **19:00** Orbe kardinalaren plazatik irtenda, **KALEJIRA** The Joselontxo's txarangarekin.

- **20:00 LARRAINDANTZA** herrikoia Orbe Kardinalaren plazan.

- **20:30** Orbe Kardinalaren plazan **EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA**, Afaltzaindia taldeak antolatuta.

- **22:30** Demode taldearen **KALE IKUSKIZUNA** San Pelaioko plazan.

- **23:00 / 4:00** Orbe Kardinalaren plazan Vulkano show orkestraren **DANTZALDIA.**

- **00:30 / 4:00** San Pelaio plazan, Beti

Txarto taldeak antolatutako **MUSIKA ELEKTRONIKOAREN JAIALDIA** Madrileko Darkrow, Gipuzkoako Stan Garac eta bertako Alexander M. eta Erikss DJekin.



ASTARLOAN

GOXO GOXO

Kafé & Deliss

Tfo.: 943174612



Menua, kaxolak,
razioak, pintxoak...
Plater konbinatuak
5€ tik aurrera!
Ogitartekoak,
hanburguesak...

Tel. 943 17 15 57
ERMUA



Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

infretabu

Kardenal Orbe plaza
Ermua

www.infretaberna.com

943174584





KARIKATO
 TR. KANTABRIA N°1 BAJO
 48.260 ERMUA
 (BIZKAIA)

Mendiola

Jatetxea

tlf: 846 080 086

UZTAILAREN 26a, ASTEARTEA

- **7:00 TXOKOLATE-JANA** plazan, Gaztela eta Leongo Kultur Zentroak antolatuta.
- **7:30 BARRUS** partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8:00 SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.
- **12:00 / 14:00 eta 17:00 / 20:00 HAURENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
- 12:00 **NAGUSIEI OMENALDIA** egingo zaie eta **SARIAK** entregatuko zaizkie Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- **13:00** Alboka Musika Eskolako Bandak **KONTZERTUA** eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- 14:00 merkatu plazan, Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.
- **18:00 ESKUPILOTA** partidak Orbe Kardinalaren plazan, Ermuko Pilota Taldeak antolatuta:
 - Jubenilen 4'terdiko partida.
 - Neskeen arteko partida Larrabetzu neska pilotarien elkartearen partaidekin: Ane Baraizaran-Irati Etxeberria Jone Goiri-Carmen Zubiaurre.
 - Afizionatuen binakako partida.

- **19:00** Gari, Montxo eta Joselontxo **PAILAZO IKUSKIZUNA** Orbe Kardinalaren plazan.
- **19:00 KALEJIRA** Irulitxa musika-bandak alaituta.
- **19:00 KALEJIRA** Ermuko txarangen esku-tik.
- **20:00 LARRAINDANTZA** Orbe Kardinalaren plazan.
- **22:30** Zanguango taldeak "Aquí va a pasar algo" **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du San Pelaio plazan.
- **22:00 / 4:00** Valencia Orkestrak **DANTZALDIA** alaituko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **00:30 / 4:00** San Pelaio plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako **MUSIKA JAIALDIA** Ermuko Black Redding eta Bilboko Atlántida rock taldeekin eta bertako Alexander M. eta Sebita DJekin.




ERZ
 Ondo pasa
 Santixauetan!!




esanline[®]

846 080 010
 Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
 esanline.es



Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es



-%50!!

Atsedendiaz
hitz egingo
dugu?

**Zubiaurre 32
(Ermua)
943 177 041**

UZTAILAREN 27a, ASTEAZKENA

- **7:00 TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela eta Leongo Kultur Zentroak antolatuta.
- **7:30 BARRUS** plazako pilotalekuan.
- **8:00 SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.
- **10:00 / 11:30** Arrozaren banaketa Orbe Kardinalaren plazan eta, ondoren, **PAELLA LEHIAKETA** ezagunari ekingo zaio haur eta helduen kategorietan. Antolatzailea:



- Lobiano Gastronomía elkarte. Laguntzailea: Ermuko Dendari eta Ostalarien Elkarte.
- **11:00** Martxoak 8 plazan, **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztiarentzat, Nagusien Etxeak antolatuta.
 - **12:00 / 14:00** eta **17:00 / 20:00 HAURENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
 - **12:30 KALEJIRA** Gazte txarngaren eskutik.
 - **14:00** paella lehiaketa-



- ra aurkeztutako platerak **DASTATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA**.
- **18:00 ERROMERIA** Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.
 - **19:00 KALEJIRA** Gazte txaranga.
 - **19:00** paella lehiaketaren epaimahaiak **IRABAZLEAK** ezagutaraziko ditu eta **SARI-BANAKETA** egingo da Orbe Kardinalaren plazan.
 - **19:15** Orbe Kardinalaren plazan, **AURRESKU ETA LARRAINDANTZA** herrikoia.
 - **20:00 ERROMERIA** Lotxo taldeak alaituta.
 - **23:30** Irulitxa musika-bandaren **ONGIETORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.
 - **00:00 SUZIRIAK** Ongaraiko parkean. Ondoren **KALEJIRA** Orbe Kardinalaren plazara eta bertan jaiei agurra emango dien **AGUR JAUNAK**.
 - **00:30 JAIEN AMAIERA** Lorenzo Santamaria abeslariak **KONTZERTUA** eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.
Telefonoa 943 17 04 14



Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarbiketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

Bitsi-denda Tailor propioa Etoju-denda



Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

SPARA
rehabilitazio + sostenibiltasun

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zoharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXKEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

E L E N A P E R E Z

- Nolatan hasi zinen txistua jotzen?

Osaba-izebek dantza eta txistu akademia zuten Eibarren eta neba eta biok eurenean hasi ginen.

- Zergatik txistua?

Arina da, edonora eraman daiteke, giro ezin hobe sortzen du...

- Non trebatu zinen?

Donostiako kontserbatorioan.

- Non aritu zara irakasle lanetan?

Eibarren, Bergaran, Gasteizen, Soraluzen... Maiz aldatzen dut lekuz.

- Irakasle zorrotza al zara?
Momentuaren eta ikasle taldearen arabera.

- Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna?
Musikarekiko harremana.

- Bestelako musika tresnarik jo duzu?

Bai. Zeharkako txirula eta biolontxelo.

- Musika estilo bat aipatzekotan?

Denetarik gustatzen zait, musika elektronikoa izan ezik.

- Nola oroitzen duzu gaztaroa?
Bizitzako zati garrantzitsu gisa.

- Parranda asko egindakoa zara?



Zortzi bat urte zituela ekin zion Elena Perezek txistua jotzeari. Eskolaz kanpoko jardueratzat hartu zuen hasieran. Geroago piztu zitzaion ordea jakin-mina. Konturatu orduko, hiru zuloko txirularen doinuak harrapatu zuen. 48 urte ditu eta bera da zazpi anai-arreben artean gazteena.

Egin izan ditut batzuk, baina momentu honetan ez dut gogorik!

- Nola lasaitzen duzu zure burua?

Familiarekin eta lagunekin egonez, eurekin afalduz...

- Biziorik?

Poteak hartzea (barre artean).

- Bidaia bat?

Toki lasairen batera, jende gehiegirik gabekoa.

- Kolore bat...

Berdea, beltza...

- Eguneko unerik gozoena...

Gaua.

- Jateko gogoririk?

Barazkiak.

- Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?

Etxeko lanak, lanera joan, irakurri, musika entzun...

- Akatsik baduzu?

Askoi! Jenio txarra dut, nahiz eta azkar pasatzen zaidan.

- Hizkuntzekin ondo moldatzen zara?

Bueno... euskara, gaztele- eta ingelesa menderatzen ditut. Frantsesa, ordea, erdi ahaztuta dut.

- Egin gabe daukazun hori?
Konposizio musikal ederra idaztea, ezagutzen ez ditudan herrialdeak bisitatzea...

- Bizitzak zer irakatsi diuzu?

Gauzak datozen bezala hartu behar direla ahalik eta gutxien sufritzeko.

- Berriz jaioko bazina?

Batek daki! Egin gabe ditudan egingo nituzke.

- Nola definituko zenuke zure burua?

Urduria baino, ipurterrea naiz.

- Lagun bati zer eskatzen diozu?

Fideltasuna, entzuten jakitea eta barre egiteko erraztasuna.

- Zer du faltan Ermuak?

Herritarren inplikazioa.

- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Minbiziari aurre egiteko erremedioa aurkitu dela.

Leire Elustondo

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299

Heapaindegia

MT Heapaindegia
C/ Marqués de valdespina n° 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Móvil. 688819336
facebook. <https://www.facebook.com/heapaindegiamtxehuqueria.mt>

Silvia Gastón Izaquirre

Eneritz Murillo, Bic boligrafoaren erregina

Pastelak, arkatzak eta akuarelak erabili ohi ditu Eneritz Murillok bere margolan eta marrazkietan, baina aurten erreminta berria lantzeari ekin dio: **Bic boligrafoa, alegia. Udal Pintura Eskolan hasi eta trebatu eta gero, 17 urteko ermuar honek afizioa ofizio bihurtu nahiko luke.**



MARGOA

Lehen Hezkuntzako 5. mailan hasi zen Eneritz Murillo Udal Pintura Eskolan, Natalia Arrieta eta Rosa Basoa irakasleekin. Urte hauetan, hainbat teknika probatu ditu eta azkena Bic boligrafoa izan da. Aurten erakutsi dio Natalia Arrietak boligrafoa astintzen, eta kolore urdina erabiltzea ohikoena bada ere, Eneritzek beltza erabiltzen du. Hori baliatuz espresioak irudikatzen ditu eta hiperrealismoa ematen die bere artelanei: Artelan ederrak benetan!



INSPIRAZIOA

Edozein argazkirekin inspiratzen da, eta aitortzen du argazki bakoitzak bere teknika eskatzen duela. Bere burua gogotsu ikusten duenean hasten da lanean, edozein momentutan jar daiteke marrazten.

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Drogeteniturrri, 247 zkoa.



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com




IKASKETAK

Eibarko Aldatze Ikastetxean batxilergo teknologikoa ikasten dabil. Biologikoan sartu-irten bat egin eta gero, bere bidea topatu du teknologikoan. Hainbeste batxilergo saltsa etorkizunearan kriminologia ikasteko! Horrez gain, batxilergo bikoitza egiten dabil ingelesez, eta horrek ordu asko kentzen dizkio, dena Internet bidez ikasi behar duelako, eta gainera ingelesez.



LEHIAKETAK

Hainbat lehiaketatan parte hartu izan du. Zenbait urtetan Lobianon egiten den lehiaketara aurkeztu izan da eta bitan irabazi du. Iaz, gainera, DKV Freshart lehiaketara aurkeztu zen eta marrazketa arloan hautatua izan zen, baina ez zuen garaipenik lortu.




AISIALDIA

Deskonektatzeko erabiltzen ditu boligrafoak zein margo eta arkatzak, baina hala ere, onartzen du bere bizitzan arnasa hartzea faltan botatzen duela. Izan ere, lagunak asteburuetan bakarrik ikusten ditu, larunbatetan batez ere. Hainbeste denbora eskatzen dion hobby hau ogibide izatea nahiko luke, nahiz eta oso zaila ikusten duen. Baina, dagoeneko baditu enkarguak, beraz, zerbaitean badabil!



Testua: Amaia Arginzoniz



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPUNKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERSIANA DEKORATIBOAK
- PERSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)



✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305





leapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Argazkiak

Pasa den astean kafe bat hartzen ari nintzela lagun batekin, telefonoan gordetzen ditugun argazkiak erakutsi genizkion elkarri. Lagunak orduan esan zidan paperezko argazkirik ateratzen ez duenetik guztiz desordenatuta dituela argazkiak, gainera gorde egiten dituela baina ikusi, inoiz ez dituela ikusten, han eta hemen gordetzen dituelako: mugikorrean batzuk, ordenagailuan besteak, disko gogorrean... eta oso zaila egiten zaiola argazki zehatz bat topatzea.

Oso normala dela esan nion, argazki digitalak bakarrik ditugunetik jende askori gertatzen zaiola. Baina lagunak esan zidan bere laneko gauzeekin ez zaiola halakorik gertatzen, laneko argazkiak oso ondo ordenatuta dituela karpeta ezberdinetan lane-

ko ordenagailuan, eta argazkiak bakarrik ez, dena oso ondo ordenatuta daukala, lanetik kanpoko gauzak ez bezala. Eta orduan, pentsatu zuen: "Nire bizitza profesionala pertsonala baino ordenatuagoa daukadala esan nahiko du horrek?"

Elkarri agur esan ondoren, pentsatu nuen jende askori gertatzen zaiola antzeko zerbait, eta ez dela kasualitatea, etxetik kanpoko lana etxe barrukoa baino gehiago baloratzen duen gizarte batean. Gizarte honetan ez baita barkatzen norbaitek lanean huts egitea baina bai seme-alabak ikastolatik jasotzeko denborarik ez izatea, edo maite ditugun pertsonekin egoteko denbora ez izatea. Gizarte honetan gutxi baloratzen dira bizitzaren sostengurako oinarritzakoak diren pertsonen zaintza, etxeko lanak, harreman pertsonalak...

“ Ez dugu barkatzen lanean huts egitea, baina bai seme-alabak ikastolatik jasotzeko denborarik ez izatea ”



Jabi Vidal

Eta gizarte honetan bizi den nire lagunari, ondorioz, garrantzitsuagoa iruditzen zaio laneko argazkiak ondo ordenatuta izatea, huts egin eta lanik gabe geratzeko arriskuagatik behar bada, bestelako argazkiak ordenatuta izatea baino: bere seme-alabak nola hazi diren erakusten dutenak, bere amama zenak zuen irribarrea gogoratzen diotenak, edo bikotearekin Italian igarotako oporraldi haietan zein zoriontsu izan ziren erakusten dutenak. Nahiz eta ziur nagoen argazki guztietatik batekin bakarrik geratu beharko balitz, nire lagunak ez lukeela inolaz ere aukeratuko bere laneko ordenagailuan hain ondo ordenatuta daudenetako argazki bat... Eta zuk? Ze argazki aukeratuko zenuke?

P.d.: Nik karpeta berri bat sortu dut mugikorrean: "Gaztetxea" jarri diot izena. Noizbait argazkiak edukiko ditu?

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Ervailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**

ALOKAIRUA

Pisua alokatzen dut Zubiurre 24an. Bi logela ditu. ☎ 648 64 37 15

Pisua alokatzen dut Iparragirre kalean. Bi logela ditu. ☎ 669 20 91 83



Abuztuaren 3an Zorionak Aner!!! Beti bezain alai jarraitu. 6 tirakada belarritik etxekuen partez.



Uztailaren 15ean Zorionak! 35 muxu potolo familiaren partez, eta beste bi potoloagoak Udane eta Telmoren partez.



Abuztuaren 20an Zorionak Lexuri etxekoen partez, eta musu handi-handia Aitzolen partez.



Uztailaren 12an Zorionak Lur!!! Jarraitxu betiko moduan hain txaplata eta jator! Maitxe zaitxugu!!



Uztailaren 26an Zorionak Lorea!! aurten ospakizun handia merezita gainera!! Musu handi bat!!



Abuztuaren 25ean Zorionak Iraia!! Ondo ondo pasatu zure 8. urtebetetzean!! Musu handi-handi bat!!



Abuztuaren 27an Zorionak Aner !! Primeran pasatu zure 10. urtebetetzean!! Musu handi-handi bat!!



Uztailaren 6an Zorionak Benat zure 7. urtebetetzean etxekoen partez.



Uztailaren 10ean Zorionak Luken zure 5. urtebetetzean etxekoen partez.



Uztailaren 17an Zorionak Xabi zure urtebetetzean familiaren partez!!!



Abuztuaren 19an (Mikel) eta abuztuaren 26an (Jon) Zorionak Mikel eta Jon aitxatxamama eta osaba-izekoen partez. Opariz betetako egun zoragarria pasatu!!



Uztailaren 27an Zorionak Martxel! Egun ona pasau ta txokolatzeko muxuak familixakuen partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua drogeten@gmail.com helbidera. Azken eguna: irailaren 19a.



Dani Cermeñok irabazi du "Urko 69tan ezetz!"

Dani Cermeño ermuarrak irabazi du aurtengo "Urko 69tan ezetz" mendi-igoera. Uztailaren 16an, Patxi Plazatik hasita, Urko puntaraino igo zen 69 minututan. Hori dela eta xanpain botila, txapela, lore-sorta eta 110€ jaso zituen. Artarrai Mendi Taldeak antolatutako lasterketa honen 6. edizioa burutu da aurten, eta bertan 110 parte hartzaile egon dira.

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

MUGA
KIRORAK
San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

TORREKUA
Pintxo eta kazolatxoak
Torrekua kalea 2 - Ermua
943 17 69 29

**MALLABIA
1959**

Argazki hau 1959ko apirilaren 11n aterata dago, Bolibarren. Longakoak ziren Santa Meabasterretxeak eta Elias Antxiak bertan ospatu zuten ezkontza, elizkizuna Ziortzan egin eta gero. Argazkian agertzen dira: Candido Garitagoitia, Eusebio Zelaia, Felix Sangroniz, Agustin Sangroniz, Elias Antxia, Antonio Apoita eta Pedro Apoita.

**ERMUA
1965**

Hanbreko arbolapean, lagun arteko paella-jana. Plan ezin hobea abuztuaren 30 haren berotasunari aurre egiteko! Adreilu batzuk jiratu ostean, mendi-motatxoa aprobetxatu zuten sua haizetik babes-teko eta erdi loka dagoen paellerara arrosa botatzen Juanito Txurruka, Alex Solozabal espumaderia astintzen, Alejandro Solozabal txikia begira eta Dani Solozabal ardoa eskaintzen buru-belarri euren euren dau den sukaldariei.

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Azken urteotan, herriko hainbat kultur ekitaldi eta musika jarduerak gune berrian burutu dira. Esate baterako, Vertigo Rock eta Elektrojaia. Orbe Kardinalaren plazatik eta Martxoaren 8ko plazatik, San Pelaioko parkera lekuz aldatu dira. Horrek inguruko bizilagun askoren haserrea piztu du.

**Jardueren leku aldaketarekin ados zaude?
Zein beste aukera proposatuko zenuke?**



Ez zait ondo iruditzen kontzertuak San Pelaiora ekartzzea. Herriko jaiak herriaren erdigunean ospatzen dira, beraz, ez dakit zergatik ekartzen dituzten ekimen batzuek periferiara. Jaietan kanpoko jendea dator, eta herriko plaza da lekurik aproposena jarduerak burutzeko. Banatu behar da, banatuko dugu, baina...

Sonia Castro, 40 urte



Mota guztietako ekimenak leku guztietan egin beharko lirateke, eta ez bakarrik gustuko ditugunak. Zarata baino, mariatxiak nahiago nituzke nik, baina bakoitzak bere gustuak ditu, eta egun bat da. Emaztearekin afaltzera joateko aprobeztatu nuen Elektrojaian; bestela, leihoak itxiko nituzke eta listo. Datorren urtean, baina, beste leku batera eraman dezatela.

Jose Mari Beltrán, 60 urte



Horrelako ekimenak urtean behin egiten dira, eta amarratu arren, uste dut positiboa dela herriarentzat jarduera ezberdinak antolatzzea, kanpoko jendea erakartzen dutelako. Hala ere, San Pelaio oso urbanizatuta dago, eta etxeak oso gertu daude, beraz, ez dut uste leku egokia denik. Zaila da asmatzea.

Miriam Rodríguez, 29 urte



Betiondora eraman dezatela! Orain igogailua dago eta gazteak erraz igoko dira! Zergatik ekarri dute beste lekuetatik hona? Ni egun horretan afaltzera irten nintzen, zeren 10 edo 12 ordu musikarekin, abeslari barik!! Ez nago gazteen gustuen kontra, 4 seme-alaba baititut, eta aguantatu behar bada, aguantatzen da, baina... datorren urtean, beste leku batean egin dezatela.

Antonio Pachón, 73 urte

Tasio eta Sabino



- Kaixo, non dago herriko erdigunea eta jaiak?

UDAKO ZINEA

Abuztuaren 1ean:
Ocho apellidos catalanes (guztientzat).



Abuztuaren 3an:
Asterix: La residencia de los dioses (guztientzat).



Abuztuaren 8an:
Perdiendo el Norte (7 urtetik gorakoentzat).



Abuztuaren 10ean:
Relatos salvajes (16 urtetik gorakoentzat).



Abuztuaren 17an:
Palmeras en la nieve (16 urtetik gorakoentzat).



Abuztuaren 22an:
Anacleto, agente secreto (16 urtetik gorakoentzat).



Abuztuaren 24an:
Mad Max 4: Furia en la carretera (16 urtetik gorakoentzat).



Abuztuaren 29an:
Mortadelo y Filemón contra Jimmy el cachondo (7 urtetik gorakoentzat).



Emanaldi guztiak 22:00etan izango dira, Orbe Kardinalaren plazan. Euria badago, elizaren aterpean.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despaxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Zure **publizitatea:**

943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

DROGETEN
DROGETEN
DROGETEN

aldizkarian

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoiaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 Hertz Klinika - Clínica Dental
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirujia
 • Periodontzia • Implanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, beheka 943 17 71 34
 www.irale.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13, beheka
 48260 ERMUA (Bizkaia)

san pelayo
 clínica dental hertz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hertz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz García Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta implante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hertz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hertz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 • Elikagai biologikoak
 • Terapia naturalak
 • Naturopatarekin kontsultak
 • Masajeak
 • Dietistarekin kontsultak
 • Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 beheka esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

Santixau jai egunetan Euskal Birusak eta Antxitxiketan Euskal Begirale Taldeak **TXIKURIXA** zabalduko dute aurreko urteetako leku berean. Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide eta herritar guztioi laguntzeko aukera eman nahi dizuegu:

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz...
- Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...

Lagundu nahi baduzu,
deitu **688632874** telefonora

**SOR DEZAGUN
ERMUAN JAI-GIRO
EUSKALDUNA!!**

Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN



Euskal Birusa Elkartea



**Euskal Biruseko kamisetak
Txikurixan salgai!!**



Helduentzat: 12€



Umeentzat: 10€